

**Ebazpena: R 53/2022**

**Espedientea: 18/2014**

Gasteizen, 2022ko irailaren 13an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatua– honako erabaki hau hartu du:

### **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA), AISLren zerga-egoitza 2011ko ekainetik aurrera aldatzearen inguruan, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean aurkezturiko gatazkari buruzkoa. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 18/2014 espedientezenbakiarekin.

### **AURREKARIAK**

1.- SSL 2004ko apirilaren 1ean eratu zen, eta egoitza soziala eta fiskala Bilbon zituen. Haren bazkide eta administratzaile solidarioak LAG andrea eta EZ jauna dira; biak Madrilen bizi dira 2012ko ekainaren 21etik, orduan aldatu baitzuten beren bizilekua Bilbotik. Hala ere, espedientean jasota dauden eginbideetan, aitortzen dute bien ohiko bizilekua Madrilekoa izan dela 2011ko ekainetik, eta Madrilen, ZAEAn, aurkeztu zuten 2011ko ekitaldiari dagokion PFEZren aitortpena.

2.- SSLk izen soziala aldatu zuen, eta gaur egungo izena (AISL) hartu zuen, aldaketa Merkataritza Erregistroan 2013ko apirilaren 3an inskribatuta eta 2013ko apirilaren 11n argitaratuta. Egoitza Madrilgo S kalera aldatu zen; egoitza-aldaketa 2013ko maiatzaren 28an inskribatu zen Merkataritza Erregistroan, eta 2013ko ekainaren 4an argitaratu.

3.- AISLen helburu soziala honako hau da: industria kimikoarekin lotutako produktuak, azpiproduktuak, materialak eta lehengaiak merkaturatzea, fabrikatzea, egitea, ontziratzea, banatzea eta merkataritza-agentzia gisa jardutea. Jarduera Levanten, Katalunian eta Espainiako hegoaldean gauzatuko da. Fabrikatzeaz gain, hainbat hornitzaileen produktu kimikoak banatzen ere jardungo du. Produktu kimiko horiek hainbat sektoretara bideratzekoak dira; uren tratamendua, garbiketa eta desinfekzioa dira esanguratsuenak.

Jarduera nagusia Valentzian egingo da; administrazioa, langileen kontratazioa, finantza-kudeaketa eta, oro har, administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, berriz, Madrilgo bulegoetan egingo dira.

4.- 2013ko martxoan, AISL inbertsioa egiteko, negozioa prestatzeko eta Sagunton (Valentzia) produktu kimikoak fabrikatzeko instalazio bat eraikitzeko fasean zegoen. Era berean, % 50eko soda kaustikoa biltegiratzeko tangak alokatu behar zituen Tarragonako portu-terminalean, ondoren merkaturatu eta banatzeko.

Administrazioa, langileen kontratazioa, finantza-kudeaketa eta, oro har, administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Madrilgo bulegoetan egitekoak ziren.

5.- 2013ko apirilaren 18an, BFAk AISLren helbidea Madrilera aldatzeko proposamena jakinarazi zion ZAEARI. Aldaketak 2011ko ekainetik aurrera izango zituen ondorioak.

6.- Bi hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduarekin bat etorrira, indarrean zeuden *ratione temporis* idazketetan, ZAEAK ez zion aipatu proposamenari erantzun; beraz, BFAk 2014ko martxoaren 25ean aurkeztu zuen gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

7- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAK izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek *zergadunen egoitza dela eta sor litezkeen desadostasunak ebazteko* eginkizuna esleitzen dio.

### 2.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAK amore emateak —BFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuta— bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia

Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu BFAk AISLren helbidea aldatzeko egindako proposamenean; 2011ko ekainetik aurrera izango ditu ondorioak.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta AISLri jakinaraztea.